

ZENBAKIAK HARRAPATU

Maila: 5. maila

Gaiak:

- Eragiketak
- Eragiketen ordena
- Estrategia
- Elkarlana

5	9	2	6	3	8
1	3	8	1	7	4
3	4	6	2	9	7
1	8	3	4	8	5
7	2	5	9	7	6
9	5	6	4	2	1

Baliabideak:

- 2 beebot
- Zenbakien tapiza
- Zenbakien txartelen bi multzo (1tik-9ra)
- Eragiketen txartelen bi multzo (+, -, x, :)
- Fitxa bat eragiketak burutzeko eta ibilbidea markatzeko
- Arkatza eta borragoma



DESKRIBAPENA

Bi bikotek jolastuko dute, bikote bakoitzak, hartzen dituen zenbakiekin eta eragiketen ikurrekin, eragiketa bat burutuko du eta tapizean ibilbidea eginen du. Beste bikoteak asmatu beharko du zeintzuk diren erabili diren zenbakiak, ikurrak eta ze eragiketa burutu duten horiekin.

JOLASTEKO MODUA

- Robotak 1 zenbakian kokatuko dira. Bikote baten robota tapizaren eskuineko zenbakietan mugituko da eta beste bikotearena, berriz, ezkerreko zenbakietan.
- Bikote bakoitzak, zenbakien multzotik 4 txartel hartuko ditu eta eragiketen ikurren multzotik, bi.
- Horietako 3 zenbakiekin eta bi eragiketen ikurrekin, eragiketa bat burutuko du eta fitxan apuntatuko du. Parentesiak erabil daitezke ere, zailtasun maila handitzeko.
- Ondoren, tapiz gainean robotak egingo duen ibilbidea pentsatuko du, kontutan hartuta erabili dituzten 3 zifretan pausa bat egin behar dutela eta robota berriro 1 zenbakira itzuliko dela. Ibilbide hau osorik programatuko dute, beebotak egin behar dituen mugimendu guztiak batera programatuz. Laguntza bezala, duten fitxan ibilbidea apuntatuko dute gezen bidez. Ibilbidea egiteko behar dituzten froga guztiak egin ditzakete.
- Bi bikoteek beren ibilbidea prest dutenean, beste bikoteari erakusteko unea iritsi da. Bikote baten robotak bere ibilbidea eginen du, eta beste bikoteak asmatu beharko du egindako eragiketa, horretarako aldezturik jakinen dute zein den eragiketa horren emaitza eta robota egindako pausetan, erabilitako zenbakiak.
- Asmatu ondoren, beste bikotearen txanda izanen da.

